



2017-2018 ikasturtea

Unibertsitateko Ikastegietako zuzendaritza eta dekanotza taldeei zuzenduriko gida da hau. Desgaitasunak eta, oro har, hezkuntza premia bereziak dituzten unibertsitateko ikasleen arretarako laguntza eta aholkularitza eskaintzea du helburu.

Gida eskuragarri www.ehu.eus/discapacidad



Aurkibidea

1. Eginkizuna	3
2. Araudia	4
3. Ardatz Estrategikoak.....	7
4. Lan taldea	8
5. Ikasleen eroldaren bilakaera	9
5.1. Erroldan gehitu diren ikasle berrien bilakaera	10
6. Zerbitzuak unibertsitateko ikastegiekin duen jarduera protokoloa	11
6.1. Errolda	11
6.2. Ikasleen ezaugarriak.....	11
6.3. Ikasleen hezkuntza premia berezien sailkapena	12
6.4. Zerbitzua eta ikastegien arteko koordinazioa	14
6.4.1. Zerbitzuaren eskuhartzea	14
6.4.2. Ikastegiaren eskuhartzea	15
7. Zerbitzuko web orria: tresna baliagarria	16
8. Glosarioa	17
9. Kontaktua eta kokapena	18





1. EGINKIZUNA

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak desgaitasunak dituzten ikasleak eta, oro har, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen aukeraber dintasunaren printzipioa bermatu, ikasketetarako sarbidea erraztu, unibertsitateko zerbitzuak jaso eta unibertsitateko bizitzan parte hartzea errazteko eginkizuna du.



2. ARAUDIA: UPV/EHUko Estatutuak

Atal honetan zerbitzuaren lana gidatzen eta zuzentzen duen erreferentzia dokumentalak eta araudia jasotzen dira. Zerbitzuko web atariaren bitartez jaso daitezke guztiak.

UPV/EHUko ESTATUTUAK

17/2011 DEKRETUA, otsailaren 15ekoa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak onartzen dituena.

Desgaitasunak dituzten ikasleak eta, oro har, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen aukera-berdintasunaren printzipioa bermatzeko beharrezko neurriak jasotzen ditu.

I. Titulua. UPV/EHUren izaera eta helburuak

4. artikulua -

2.- UPV/EHUK honako hauek sustatuko ditu:

b) Premia bereziak dauzkaten pertsonak unibertsitateko kideen artean izatea.

3.- UPV/EHUK emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du bere baitan eta beharrezko neurriak hartuko ditu inor diskriminatua izan ez dadin arrazoi hauengatik: jatorria, etnia, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo bestelako egoera pertsonal edo sozialen bat. Beraz, UPV/EHUK aintzat hartuko ditu honako printzipio hauek: aukera berdintasuna, aniztasunaren eta diferentziaren errespetua, genero ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuari lotutako rolak eta estereotipoak baztertzea, eta gizonen eta emakumeen ordezkariak parekatua.



II. Titulua Unibertsitateko kideak

V. Kapitulua. Premia bereziak dauzkaten pertsonak

67. artikulua –

UPV/EHUK ekintzak bultzatuko ditu premia bereziak dauzkaten unibertsitateko kideek eta gainerako kideek aukera berdintasun berberak dauzkatela ziurtatzeko. Beraz, beharrezko baliabideak, informazioa, laguntza eta bitartekoak jarriko ditu premia bereziak dauzkaten pertsonen eskura

68. artikulua –

1. – UPV/EHUK bermatu egingo die aukera berdintasuna ezintasunak dauzkaten ikasleei eta unibertsitateko gainerako kideei. Beraz, debekatu egingo du edozein diskriminazio mota eta ekintza positiboa bultzatuko du, aipatutako pertsonen parte hartzea erabatekoa eta eraginkorra izan dadin unibertsitatean.
2. – Ezintasunak dauzkaten ikasleak eta unibertsitateko gainerako kideak ezin izango dira izan diskriminatuak beren ezintasunagatik, ez zuzenean ez zeharka, unibertsitate sartzeko prozesuan, bertan ari direnean, eta titulu akademikoak edo onartuta dauzkaten bestelakoak baliatzean.
3. – Ezintasunak dauzkaten ikasleek horrelakorik behar balute, unibertsitateko ikastegiekin eta sailekin esanguratsuak ez diren egokitzapen curricularrak egingo lituzkete eta ikasleen beharretara moldatutako tutoretza espezifikokoak ezarriko.
4. – UPV/EHUK egokitu egin beharko du bere ingurunea, legeriak xedatutakoari jarraiki, ezintasunak dauzkaten pertsonak oztoporik gabe ibili ahal izan daitezen bertan.
5. – UPV/EHUK kontuan hartuko du ezintasunak dauzkaten pertsonen lana emateko arategietan xedatutakoa, eta aplikatu egingo du langileak hautatu eta kontratatzean.



UPV/EHUko II INKLUSIO PLANA 2012-2017

2012ko ekainaren 22an UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartua.
Zerbitzuaren helburu, ardatz estrategiko, jarduera programak eta ebaluazioa sistema eta prozedurak jasotzen ditu.

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DAUZKATEN UPV/EHUko IKASLEEI AUKERA BERDINTASUNA BERMATZEKO ARAUTEGIA

AKORDIOA 2015eko apirilaren 30ean UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartua, hezkuntza premia bereziak dituzten UPV/EHUko ikasleei aukera berdintasuna bermatzeko.

Arautegi honen helburua da desgaitasunak eta, oro har, hezkuntza premia bereziak dituzten UPV/EHUko ikasleen arretarako ekintzak arautzea, unibertsitateko gainerako kideek dituzten aukera berberak bermatuko dizkieten ikasketetarako sarbidea erraztu, ikasketak egin eta erabateko parte hartzea izateko aukera izatea unibertsitatean egongo diren bitartean.

Hurrengo informazioa aurki dezakezu:

- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eskubideak eta erantzukizunak.
- Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuko jarduera prozedurak.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen aukera berdintasuna bermatzeko baliabideak.
- Erreklamazio prozedurak.
- Datuak babestu.



3. ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Informazioa, Aholkularitza eta Orientazioa

- Unibertsitate sarrerarako ezgaitasunak dituzten pertsonentzako arreta
- Ezgaitasunak dituzten sartu berrien ikasleen harrera
- Ezgaitasunak dituzten ikasleen arreta unibertsitateko egonaldian
- Ezgaitasunak dituzten ikasle tituludunen laneratzea

Aukerak Parekatzea

- Giza baliabideen kudeaketa: Zeinu Hizkuntzako Interpreteak eta Hezkuntzako Laguntzarako Espezialistak.
- Laguntza produktuak edo/eta baliabide teknikoek kudeaketa: irakaskuntzarako laguntzak (FM emisorea, kopia bikoitza duen koadernoak, ...)

Prestakuntza eta Sentsibilizazioa

- Formazioa : ikasle, irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalei zuzendua.
- Sentsibilizazioa: gidak, biltegiak, jardueren antolaketa, sari eta lehiaketen antolaketa.

Irisgarritasuna

- Irisgarritasunezko eskaeren arreta
- Komunikaziorako irisgarritasuna eta irisgarritasun arkitektonikoa



4. LAN TALDEA





5. IKASLEEN ERROLDAREN BILAKAERA

	2012-2013		2013-2014		2014-2015		2015-2016		2016-2017			
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G		
IKUSMENA	15	10	18	10	15	10	16	6	22	16	7	23
ENTZUMENA	17	6	15	7	14	10	14	15	29	15	11	26
MOTOREA	38	41	40	31	33	28	35	31	66	26	37	63
BESTE BAT**	82	69	76	70	72	79	74	91	165	93	104	197
GUZTIRA	152	126	149	118	134	127	139	143	282	150	159	309*

* 2015-2016 ikasturtean 282 erroldatutako ikaslelik 38 tituludun dira eta 39k ikasketak utzi dituzte. 2016-2017 ikasturtean 104 ikasle berri sartu dira. (3.1. taula ikusi)

**Kategoria honen barruan iraupen luzea duten edo tratamendu bereziren bat behar duten gaixotasun organikoetatik eratorritako patologiak biltzen dira, baita desoreka psikikoak eta ikasteko zailtasun espezifikoak ere.

5.1. ERROLDAN GEHITU DIREN IKASLE BERRIEN GARAPENA

	2012-2013			2013-2014			2014-2015			2015-2016			2016-2017		
	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira
IKUSMENA	2	3	5	7	2	9	3	3	6	3	0	3	4	2	6
ENTZUMENA	3	6	9	4	2	6	6	4	10	5	5	10	5	2	7
MOTOREA	11	9	20	12	11	23	7	10	17	7	9	16	2	13	15
BESTE BAT*	27	21	48	25	23	48	24	30	54	24	34	58	44	32	76
GUZTIRA	43	39	82	48	38	86	40	47	87	39	48	87	55	49	104

* Kategoria honen barruan iraupen luzea duten edo tratamendu bereziren bat behar duten gaixotasun organikoetatik eratorritako patologiak biltzen dira, baita desoreka psikikoak eta ikasteko zailtasun espezifikoak ere.

Ikusi informazio gehiago “EHU eta ezgaitasuna zerbaitan” zerbitzuko web orrian.





6. ZERBITZUAK UNIBERTSITATEKO IKASTEGIEKIN DUEN JARDUERA PROTOKOLOA

6.1. ERROLDA

Ikasturte bakoitzean errollda bat egiten du zerbitzuak, errollda honetan desgaitasunak, eta oro har, premia bereziak dituzten ikasleen zerrenda eta haien premiak jasotzen dituen.

Errollda hau Ikastegietako zuzendaritzak GAUR aplikazioaren bitartez eskura izango du eta administrazio buruak edo administratzaileak, eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen ikastegiko arduradunak soilik sarbidea izango dute.

Errollda honetan jasotzen den informazioa isilpekoa da, datu pertsonalak babesteko legeak araututa.

Errollda hau erabilgarria da desgaitasunak dituzten ikasle kopurua ezagutzeko eta unibertsitate ikasketetan ikasleen hezkuntza premia bereziak zein diren jakiteko.

Ikasleak behar dituen premiei erantzuteko, lehenik GAUR-en bitartez egokitzapen eskaera egin behar du eta horretarako baimendu behar gaitu.

6.2. IKASLEEN EZAUGARRIAK

Desgaitasunak dituzten pertsonen arteko ezaugarriak bereizgarriena haien artean dagoen heterogeneotasuna da. Desgaitasunak izan daitezke nabarmenak edo ezkutukoak, jaiotzekoak edo eratorritakoak, arinak edo larriak, behin-behinekoak edo behin betikoak.

Desgaitasunak dituzten ikasle guztiek ez dute zertan premia berezirik izan behar.

Badira ikasle batzuk ikasteko zailtasun espezifikoak, gaixotasunak eta nahasteak dituztenak eta ez dute desgaitasun aitoren baina erantzun behar diren hezkuntza premia bereziak dituzte.

Desgaitasunak dituzten ikasleen premiak kasu bakoitzean aztertu behar dira. Beharrezkoa da kontuan izatea ikasleak dituen mugak eta baita ere gure inguruko mugak.

Premia bereziak zazpi esku-hartze eremutan sailkatzen dira: Irakaskuntza, Azterketak, Irisgarritasuna, Orientazioa , Giza baliabideak, Baliabide teknikoak eta Beste batzuk.



6.3. IKASLEEN HEZKUNTZA PREMIA BEREZIEN SAILKAPENA

IRAKASKUNTZA

- Apunteak hartzeko laguntza
- Irakasleei desgaitasunari buruzko informazioa eman
- Apunteak hartzeko eta lanak egiteko laguntzak (tresna tifloteknikoak, bitarteko optikoak, ordenagailua)
- Testu irisgarriak (hizki mota eta tamaina, tarteak, grafikoak, ...)
- Lanak egiteko denbora gehiago izatea
- Curriculumean sartzeko egokitzapenak
- Ikus entzunezko materialaren egokitzapena
- Egokitzapena kanpoko praktiketean

AZTERKETAK

- Denbora gehiago uztea
- Testu irisgarriak (hizki mota eta tamaina, tarteak, grafikoak, ...)
- Laguntza produktuak edo/ta baliabide teknikoak (software egokitua, tresna tiflotekniko, bitarteko optikoak, ordenagailua,...)
- Altzarien egokitzapena
- Irakasleei desgaitasunari buruzko informazioa ematea
- Transkripzioa
- Gela irisgarria
- Aparteko gela
- Hasierako edo/ta bukaerako irakurketa
- Aulkiak erreserbatzea

IRISGARRITASUNA

- Motore urritasuna duten ikasleentzako garraiorako beka
- Espazioen egokitzapena (gelen antolaketa, sarrera, igogailua, WC,...)
- Altzarien egokitzapena (altzari espezifikoa)
- Aparkaleku erreserbatua
- Ikusmen urritasuna duten ikasleentzako orientazio espaziala
- Ebakuazio neurri espezifikoak
- Unibertsitate egoitza egokituak



ORIENTAZIOA

- Sartu berri diren ikasleei orientazioa
- Ikaskideei informazioa
- Ikasketen planifikaziorako laguntza
- Mugikortasun-programako ikasleentzako orientazioa
- Lanbide-orientazioa

GIZA BALIABIDEAK

- Hezkuntza Laguntzarako Espezialista (irakaskuntza, azterketak eta tutoretzak)
- Zeinu Hizkuntzarako Interpretea (irakaskuntza, azterketak eta tutoretzak)
- Tutorea
- Ikasle bolondresak

BALIABIDE TEKNIKOAK

- Laguntza produktuak edo/ta laguntza teknikoak: software egokitua (Zoom-text, Jaws, ...) FM emisorea, ...

BESTE BATZUK

- Menu berezia (alergiak eta elikadura intolerantzia, hipertentsioa)



6.4. ZERBITZU ETA IKASTEGIEN ARTEKO KOORDINAZIOA

6.4.1. Zerbitzuaren eskuhartzea

- Zerbitzuko pertsonala ikastegiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen arduradunarekin koordinatuko da, hauei erantzuteko eta horiek gestionatzeko.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eskaerak baloratuko ditu eta ikastegiak izan beharreko esku-hartze mota proposatuko du.
- GAUR aplikazioaren bitartez ikastegiko desgaitasunak, eta oro har, premia bereziak dituzten ikasleen errolda erraztuko du.
- Irakasleek zuzenki GAUR aplikazioaren "Zerrenda eta taldeen kontsulta" atalean ikasleen txostenak kontsulta ditzakete. Txostenak irakasleentzako jarraibideak jasoko dituzte, eskolak emateko nahiz azterketak egiteko.
- Ikastegiarekin eta irakaslearekin koordinatuz, ikasleari laguntzeko plan bat aktibatzen da (irisgarritasun neurriak, laguntza materialak eta euskarriak: antolaketa, tutoretza espezifikoa, azterketen egokitzapen neurriak, praktikak,..)
- Ikus-entzunezko ikasmaterialaren egokitzapena egiten du, irakaskuntzan erabiltzen diren materialak azpigitulatu.
- Sentsibilizazio eta prestakuntza jarduerak antolatzen ditu desgaitasunak eta hezkuntza inklusiboari buruzkoak, ikasle, irakasle eta administrazio eta zerbitzueta pertsonalari zuzenduta.



6.4.2. Ikastegiaren eskuhartzea

- Ikastegi bakoitzak zuzendaritzako kide bat izendatuko du premia bereziak dituzten ikasleen arduraduna izango dena.
- Premia bereziak dituzten ikasleen arduradunak ikastegiko ikasle, irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako langileen artean jakitera emango du zein den bere zeregina..
- Arduraduna zerbitzuarekin koordinatuko da, desgaitasunak eta oro har, premia bereziak dituzten ikasleen premiei erantzuteko.
- Arduradunak ikastegiko prestakuntza beharrak identifikatuko ditu eta prestakuntza eta sentsibilizazio jardueretan parte hartuko du.
- Ikastegiko administrazio burua edo administratzaileak irisgarritasun beharrei erantzuna emateko zerbitzuarekin koordinatuko da.
- Ikastegiko Auto zainketa Batzordeari zein neurri espezifiko behar diren ebakuaziorako ikasleak premia hau duenean.



7.- ZERBITZUKO WEB ORRIA: TRESNA BALIAGARRIA

Gure web orrian zerbitzuari buruzko eta gure jarduerari buruzko informazio baliagarria daukazu.

- II Inklusio Plana
- Hezkuntza Premia Bereziak dituzten UPV/EHUko ikasleei Aukera Berdintasuna Bermatzeko Arautegia
- EHU eta ezgaitasuna zenbakitan
- Legislazioa eta Araudia
- Unibertsitatea eta ezgaitasunari buruzko dokumentazioa
- Ezgaitasuna, elkarteak eta beste unibertsitateei buruzko estekak

Ezgaitasunari buruzko albisteak, desgaitasunak dituzten unibertsitateko ikasleei zuzenduriko deialdiak, ikastaroak eta bekak baita ehuZeinu bezalako zerbitzuetara sarbidea ere bilatu ditzakezue.

Web guneko bi berri azpimarratu nahiko genituzke:

1. IRAKASKUNTZARAKO LAGUNTZA MATERIALAK, EHUko irakasleei irakaskuntzarako material irisgarriak eskuragarri eskaintzea du helburu, ikasleen premia ezberdinetara egokituz.
2. IKUSMIRAN, Ikusmiran ezgaitasunak dituzten ikasleen esperientziak jasoko dituen topaleku berria da eta kuriositateak garrantzi handia duena.

Hurrengo estekatik sartu: www.ehu.eus/discapacidad



8. GLOSARIOA

HEZKUNTZA INKLUSIBOA: ikasle guztien berdintasun aukerak bermatuko dituen irakaskuntzaren diseinua, antolaketa eta garapena ikasketetako sarbidea, aurrerapena eta partaidetzan. Hezkuntza interbentzio prozesu moduan ulertu behar da pertsona guztien ezaugarriak kontuan hartuz eta aniztasunari erantzuteko egokitzeko gaitasuna duena.

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK: ikasle batzuk desgaitasun baten ondorioz edo/ta ikasteko zailtasun espezifiko, nahaste edo gaixotasun baten ondorioz ikasketak egiteko eta garatzeko dituzten premiak dira. Hezkuntza testuinguruan ezarrita dauden ikasketetan sartzeko eta garatzeko gradu handi edo txiki batean dauden zailtasunak dira.

DESGAITASUNA: Desgaitasunaren Funtzionamenduaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapenaren (CIF) arabera, 2001an OME-k argitaratua, ezintasuna terminoak funtzio eta gorputz egituran urritasunak jasotzen ditu, hots, jarduerak burutzeko gaitasunaren mugak eta hiritarrak gizartean parte hartzeko dituen murriztapenak.

AUKERA BERDINTASUNA: zuzeneko edo zeharkako bazterkeria eza da eta baita ere neurriak hartzea, desgaitasun bat duen pertsona batek bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko dituen desabantailak saihestu edo orekatzeko.

IRISGARRITASUNA: inguru, produktu edo zerbitzu batek izan beharreko ezaugarri multzoa da, pertsona guztiek erosotasunez, berdintasunez eta segurtasunez erabil dezaten, batez ere desgaitasunen bat dutenek.

DISEINU UNIBERTSALA: jakintzat ematen du gizatasuna ezin dela neurtu gaitasun, neurri edo estandar batzuen arabera, baizik eta orokorrean ikusi behar dela, aniztasuna arautzat hartuta eta ez salbuespentzat. Edozein produktu edo/ta zerbitzu diseinatu eta inplementatzerakoan premiak dituzten pertsona guztientzat egokituta dagoela esan nahi du

JARDUERARAKO NEURRI POSITIBOAK: laguntza bereziak dira, ezintasun bat duten pertsonen bizitza politiko, ekonomiko eta sozialean erabat parte hartu eta sartzeko aurki ditzaketen desabantailak edo zailtasun bereziak saihestu edo orekatzeko, ezintasun mota eta maila ezberdinak kontutan hartuta.



9. KONTAKTUA ETA KOKAPENA

Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua

GIPUZKOA

Ane Amondarain Rodriguez / Mamen Lopez Lizarralde

Ignacio M^a Barriola Zentroa (Gelategia)
Elhuyar Plaza, 1
20018 Donostia

T: 943 018137

BIZKAIA

Kepa Gonzalez Antona

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko beheko aldea
Sarriena Auzoa, z/g
48940 Leioa

T: 94 6012258

ARABA

Natalia Ortiz Blasco

Arabako Campuseko Errektoreordetza
Komandante Izarduy kalea, 2
01006 Vitoria-Gasteiz

T: 945 014 343

discap@ehu.eus

www.ehu.eus/discapacidad